

BALIO PROPOSAMENA

Gure proiektuak gaur egungo gazteei heldutasunera iristean gertatzen diren arazoetan laguntza ematea du helburu. Gure ikuspegia integrala da, eta honen bitartez fakturak ulertzeko arazoak, dieta osasuntsu eta orekatuena eraikitzea, kurrikuluma egiteko ezjakintasuna eta aurreikusten ditugun beste hainbat arazo aztertu eta haien aurrean erantzuteko laguntza eskaini nahi dugu, beraien behar eta helburuetara egokituz.



Ekimenak Komunitate Proiektuko ikasgaiak identifikatutako erantzunak eta irtenbideak hartzen ditu. Talde gisa, gure helburua gazteei heldutasunera hurbiltzean laguntza ematea da, haien bide profesional eta pertsonalean erraztasunak izateko bidean gidatuz. Gainera, gazteek eskuragarri dituzten baliabideak, informazioa, eta laguntza emanez, haien potentziala garatzen laguntzen dugu.

Aurretik aipatu dugun moduan, aurreikusi ditugun arazoak aztertuz, pertsonalizatutako ikasketa estrategiak diseinatzen ditugu. Taldeen integrazioa eta elkarrekin lan egitea bultzatzen dugu. Horrela, bizitzako erronka edo arazoak gainditzea beraien kabuz lortu dezakete gazteek. Laguntza honek beraien autonomia eta independentzia garatzeko bidea bultzatzen du, gizartean parte hartuz eta bizi-baldintzak hobetuz.